

 IBARRAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE IBARRA	
2017 IRA. SET. 26	
SARRERA / ENTRADA N.º Zkia.	IRTEERA / SALIDA N.º Zkia.

EHBilduk eta EAJ-PNV aurkeztutako mozioa Kataluniari buruz:

Espainiako Guardia Zibila Katalunian egin duen operazioen larritasuna ikusirik, eta urriaren 1eko erreferenduma Kataluniako erakunde nagusiek herritarren nahiei bide emateko hartutako erabakia galarazteko Espainiako Gobernua bultzatzen ari den neurri antidemokratikoei erantzunez, Ibarra udalak ondorengoa adierazi nahi du:

1. Oso kezkatuta gaude Espainiako Estatu Katalunian izaten ari den esku-hartzearekin eta irmoki salatzen ditugu azken gertakariak/erasoak: Generalitateko hamalau kargudunen atxilotetak, miaketak eta etengabeko jazarpen polizial eta judizialak. Atxiloteta politikoak dira eta beraien delitua politika egitea soilik da. Salbuespen egoera ezartzen ari da Katalunian, eskubide zibil eta politikoak masiboki urratuz. Gertatzen ari dena asaldagarria eta onartezina dela uste dugu. Nahikoa dela esateko ordua da.
2. Gure elkartasun osoa helarazi nahi diegu atxilotuen eta jazartuen lagun eta senide, Kataluniako erakunde guztiei eta orokorrean Kataluniako herri osoari. Gure babesa eta laguntza izango dute, orain artean bezala, urriaren 1a bitartean, eta baita urriaren 1etik aurrera ere.
3. Urriaren 1eko erreferenduma Kataluniako herritarren gehiengoaren nahiari erantzuteko tresna demokratikoa dela eta, beraz, guztiz zilegia. Herritarrok gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea edo herri honek autodeterminazio eskubidea du. Euskal Herriak eta Kataluniak libreki adierazitako herritarren borondatea bidez bere etorkizuna eraikitze eskubidea dute.
4. Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu eta ez dugu onartuko politika egitea delitu bilakatzea, demokrazia ezin baita Konstituzioara mugatu. Elkartasuna adieraztea nahi diogu espresuki alkateei.
5. Udal honek kataluniarrek urriaren 1ean hartutako erabakia errespetatu eta aitortuko du eta beste erakundeei ere errespetatzeko deia egiten die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.